Kontratuan zehar eratu eta Udalari entregatzen zaizkion agiriak (azterlan, txosten, proiektu, oroitidazki, aurrekontu, faktura eta bestelako agiriak) euskaraz sortu eta bideratuko dira, hori baita Gazteria sailaren lan-hizkuntza. Dokumenturen bat gazteleraz ere egon beharko balu, adibidez Batzorde Informatibo baterako edo beste kasuren batean, aldez aurretik adieraziko zaio enpresari, ele bitako bertsioa prestatu dezan.

La documentación que se entregue al Ayuntamiento durante la prestación del servicio (estudios, informes, proyectos, memorias, presupuestos, facturas u otros documentos) se realizará en euskera, ya que ese es el idioma de trabajo del departamento de Juventud. Si algún documento tuviera que estar también en castellano, por ejemplo para una Comisión Informativa o en otro caso, se comunicará a la empresa previamente, al objeto de que prepare la versión bilingüe.

Hizkuntza paisaia

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zerbitzua ematean herritarrei begira jartzen dituen errotulu, seinale, ohar, kartel eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egongo dira.

- Mezuak piktograma bidez egingo dira.

- Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten hitzetan, edota oso zabalduta daudenetan (udaletxea, kultur etxea,...)

- Aurreko kasuak ezinezkoak direnean, ele bietan egongo dira, euskarari lehentasuna emanez, betiere Udalarekin adostuta.

Paisaje lingüístico

Los rótulos, señalización, avisos, carteles y resto de comunicaciones de carácter general que instale la empresa adjudicataria al prestar el servicio, se harán en euskera o en los dos idiomas oficiales.

- Los mensajes se realizarán mediante pictogramas.

- Cuando no pueda utilizarse un pictograma, se realizarán en euskera cuando la grafía de las palabras sea similar en euskera y en castellano o se trate de palabras de uso extendido (udaletxea, kultur etxea...)

- Si los casos anteriores no son posibles, se hará de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad del Ayuntamiento.

Hizkuntza baldintzen jarraipena

Udalak enpresa adjudikazio-hartzaileak ematen duen zerbitzuaren jarraipena egingo du kontratua gauzatzen den epe osoan, indarrean dagoen araudia bete eta herritarren eskubideak bermatzeko.

Gazteria sailak harremanetan jarriko ditu enpresa adjudikazio-hartzailea eta Udal Hizkuntza Politika saila, jendaurrean arituko diren langileei euskara gaitasuna egiaztatzeko elkarrizketa egin diezaien, zerbitzua bi hizkuntza ofizialetan berme osoz eskain dezaketen egiaztatzeko asmoz. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak jasotako titulazioren bat aurkeztuz gero, berriz, ez dute elkarrizketa egin beharrik izango. Era berean, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, aintzat hartuko dira euskaraz egindako ikasketa ofizialak, eta kontuan hartuko dira euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuetsitako kasuak.

Seguimiento de los criterios lingüísticos

El Ayuntamiento realizará el seguimiento del servicio ofrecido por la empresa adjudicataria durante toda la fase de ejecución del contrato, con el fin de cumplir la legislación vigente y garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

El área de Juventud pondrá en contacto a la empresa adjudicataria con el departamento de Política Lingüística Municipal al objeto de que realice una entrevista a las personas designadas para la prestación del servicio de atención directa al público, en la que se verifique que tienen la capacidad lingüística necesaria para trabajar con total garantía en los dos idiomas oficiales. Quienes presenten alguna de las titulaciones recogidas en el Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas no tendrán que realizar la entrevista. Asimismo, en base al Decreto 47/2012 de 3 de abril, se reconocerán los estudios oficiales realizados en euskera y serán considerados los casos de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9

Elkarrizketa eguna eta ordua Udal Hizkuntza Politikak adostuko du zerbitzua jendaurrean emango duten langileekin, eta gehienez ere zerbitzua ematen hasi eta hamabost egunera egingo da.

El día y hora de la entrevista serán consensuadas entre el departamento de Política Lingüística Municipal y las y los profesionales, y se realizará como máximo dentro del plazo de quince días desde el comienzo de la prestación del servicio.

Udal Hizkuntza Politika sailak elkarrizketa egin duten langile guztien euskara gaitasunaren inguruko txostena emango du. Zerbitzua jendaurrean ematen jarraitzeko ezinbestekoa da Udal Hizkuntz a Politikaren aldeko txostena eskuratzea. Elkarrizketan jendaurreko funtzioak bi hizkuntzetan betetzeko beharrezko gaitasuna egiaztatu ezean, langilea ordezteko eskatuko zaio enpresari.

El departamento de Política Lingüística Municipal emitirá informe sobre cada persona que realice la entrevista. Para prestar servicio de cara a la ciudadanía es imprescindible el informe favorable del departamento de Política Lingüística Municipal, por lo que se exigirá a la empresa que sustituya a las personas que en la entrevista no acrediten la capacidad lingüística necesaria para desempeñar sus funciones de atención al público en los dos idiomas oficiales.

Zerbitzua ematen den bitartean, eta hizkuntzari dagokionez zerbitzuari egindako jarraipenean oinarrituta, Udalak uste badu baldintza teknikoen agirietan jarritako hizkuntza betebeharrak ez direla bete, arau-hausteen ondoriozko prozedura jarriko du martxan (kontratua amaitu edo penalizazioak ezarri, kasuan-kasuan).

Si durante la prestación del servicio el Ayuntamiento considera que no se han cumplido las obligaciones lingüísticas establecidas en el pliego de condiciones técnicas, pondrá en marcha el procedimiento derivado de las infracciones cometidas (finalización del contrato o imposición de penalidades, según corresponda).

10. EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNA BULTZATZEKO IRIZPIDEAK

Obligazio horiek zehazki araututa daude honako hauetan: 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 118. artikuluan; 2004/18/EE Zuzentarauaren 24. artikuluan; 3/2007 Lege organikoaren 33. eta 34. artikuluetan; 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, 20.2. artikuluan; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren kontratazioan gizarte-irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren Erabakiaren 3. Atalean.

Kontratuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako hurrengo exekuzio baldintza sozialak sartuko dira:

10. CRITERIOS PARA EL IMPULSO DE LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

Dichas obligaciones están expresamente reguladas en el artículo 118 del Real Decreto Legislativo 3/2011, el artículo 24 de la Directiva 2004/18/CE, los artículos 33 y 34 de la Ley orgánica 3/2007, el artículo 20.2. de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, y el apartado IX.3 del Acuerdo de Gobierno Vasco «sobre incorporación de criterios sociales, ambientales y otras políticas públicas en la contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma y de su sector público».

Se incorporarán al contrato las siguientes condiciones de ejecución de carácter social relacionadas con la igualdad de mujeres y hombres:

ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9

1. 4/2005 Legean, otsailaren 18koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoan, eta 3/2007 Lege organikoan, martxoaren 22koan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirakoan, ezarritako printzipioak eta betekizunak betetzea.

2. Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, eta bi hizkuntza ofizialetan, ahoz zein idatziz, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistarik erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

3. 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurriena, aurreko emakumezko eta gizonekoen berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, aldatzen duena, 2020ko martxoaren 7tik aurrera 150 langiletik gorako enpresek **berdintasun plan bat badutela justifikatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko dute , 2021eko martxoaren 7tik aurrera 100 langiletik gorako enpresek eta 2022ko martxoaren 7tik aurrera, 50 langile baino gehiago dituztenek. Berdintasun Planak 901/2020 Errege Lege Dekretuan bere arauketari eta erregistroari buruz jasotakoa bete beharko dute.

Kontratuaren diseinuak eta exekuzioak genero-ikuspegia aintzat hartu beharko dute, diagnostikoan, helburuetan, jardueretan eta ebaluazioan. Halaber, amaierako justifikazioan, kontratazioak generoan izandako eraginari buruzko memoria eman beharko da. Memorian, pertsona erabiltzaile edo onuradunen sexuaren arabera banakatutako datu eta adierazleak erabiliko dira, aplikatutako berdintasun-neurrien eragina ebaluatu ahal izateko.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak zeharka integratuko

1. Cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero,del Parlamento Vasco, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

2. Toda la documentación, publicidad, imagen o materiales, en las dos lenguas oficiales y tanto de forma escrita como oral, deberán emplear un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.

3. Tras la aprobación del Real Decreto-ley 6/2019, de 1 de marzo, de medida urgentes para la garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación, que modifica la anterior Ley Órganica, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Hombres y Mujeres, a partir del 7 de marzo de 2020 deberán presentar la **documentación justificativa de contar con un plan de igualdad** las empresas de más de 150 trabajadoras y trabajadores; a partir del 7 de marzo de 2021 las de más de 100 personas trabajadoras y a partir del 7 de marzo de 2022 las de más de 50 personas trabajadoras. Los Planes de Igualdad deberán cumplir lo recogido en el Real Decreto ley 901/2020 sobre su regulación y registro.

El diseño y la ejecución contractual deberán contemplar la perspectiva de género en su diagnóstico, objetivos, actividades y evaluación. Igualmente la justificación final deberá incorporar un informe abreviado de impacto de género, con indicadores y datos desglosados por sexo de las personas usuarias o beneficiarias y comprensivo de la eficacia de las medidas de igualdad aplicadas.

La empresa adjudicataria integrará de forma

ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9

ditu programazio guztiaren diseinu eta garapenean pertsonen garapen integrala bultzatuko duen ondorengo hezkidetza-helburuak:

-Emakume eta gizonei esleitzen zaizkien portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritzi, estereotipo eta rolak ezabatzea, neska-mutilei euren burua erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.

- Emakumeen jakintza eta emakumeek gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen sozial eta historikoa integratzea.
- Beharrezko ezagutzak sartzea, neska-mutilek etxeko lanak eta pertsonak zaintzea direla eta dituzten beharrizan eta erantzukizunen ardura har dezaten.
- Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak erakutsiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeek eta gizonek eskubide eta aukeren aldetik duten berdintasunaren errespetuan oinarritzen diren bizikidetza-ereduak ere.

Erabiltzen diren materialak aurreko puntuan jasotako helburuak barneratuak izan behar dute . Edonola, ezingo dute pertsonek sexu batekoa edo bestekoa izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soilak direla adierazi.

Egiten den lanean genero ikuspegia txertatzen dela bermatzeko, enpresa adjudikazio-hartzaileak bere langileek hezkidetzan prestakuntza espezifikoa dutela bermatu beharko du.

Bai hezitzaileek eta bai koordinatzaileak udaleko erreferentziako teknikariari jakitera eman behar diote emakumeen eta neskato-mutikoen aurka nabaritzen duten indarkeria-zantzu oro.

Hezitzaile eta zuzendarien artean gizon eta emakumeen presentzia orekatua bultzatuko da. Presentzia orekatua dagoela ulertzen dugu sexu biek gutxienez %40ko ordezkaritza dutenean.

transversal en el diseño y desarrollo de toda la programación la educación basada en el desarrollo integral de las personas, con los siguientes objetivos coeducativos:

- La eliminación de los prejuicios, estereotipos y roles en función del sexo, construidos según los patrones socioculturales de conducta asignados a mujeres y hombres, con el fin de garantizar, tanto para las chicas como para los chicos, posibilidades de desarrollo personal e integral.
- La integración de los saberes de las mujeres y de su contribución social e histórica al desarrollo de la humanidad.
- La incorporación de conocimientos necesarios para que las chicas y los chicos se hagan cargo de sus necesidades y responsabilidades relacionadas con el trabajo doméstico y de cuidado de personas.
- La prevención de la violencia contra las mujeres, mediante el aprendizaje de métodos no violentos para la resolución de conflictos y de métodos de convivencia basados en la diversidad y en el respeto a la igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres.

Los materiales que se utilicen deben integrar los objetivos señalados en el punto 1, no pudiendo presentar a las personas como inferiores ni superiores en dignidad humana en función de su sexo ni como meros objetos sexuales.

Con el fin de integrar la perspectiva de género en su labor, la empresa adjudicataria, deberá garantizar la capacitación específica en coeducación de su personal.

Tanto el monitorado como las personas coordinadoras tienen la obligación de poner en conocimiento del o la técnica municipal de referencia los indicios de violencia contra mujeres y niños o niñas que les consten.

Se tratará de que exista una presencia equilibrada de ambos sexos entre el monitorado y las personas responsables. Se entiende por presencia equilibrada cuando ambos sexos están representados al menos en un 40%.

ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9

Enpresa esleipendunaren plantillarako, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa aplikatuko dela bermatuko da, honako hauekin lotutako politiketan: prestakuntza, langileen hautaketa, sailkapen edo kategoria profesionalak, arreta, mailaz igotzea, soldatak, egonkortasuna edo lanean jarraitzea, ordezkaritza, lansegurtasuna eta -osasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua.
Kontratazio berrietan Udalak enpresari hurrengo irizpideak har ditzan gomendatuko dio:

Kontratuaren prestazioa emateko lanerako kontratatutako pertsonetatik, gutxienez % 40 emakume izatea.
Entitate edo enpresa adjudikazio-hartzailearen lanpostu kualifikatuen, ardurazkoen edo gerentziazkoen % 40 gutxienez emakumeek betetzea.

Se garantizará la aplicación del principio de igualdad entre mujeres y hombres para la plantilla de la entidad adjudicataria del contrato en cuanto a políticas de formación, selección, clasificación profesional, atención, promoción, remuneración, estabilidad o permanencia, representación, seguridad y salud laboral, o duración y ordenación de la jornada laboral.

En las nuevas contrataciones, el Ayuntamiento recomendará a la empresa la adopción de los siguientes criterios:
Que al menos un 40% de las personas contratadas laboralmente para la prestación del contrato sean mujeres.
Que al menos un 40% de los puestos de trabajo cualificados, de responsabilidad o gerencia de la entidad o empresa adjudicataria estén ocupados por mujeres.

11. IDATZIAK ETA DOKUMENTAZIOAK

Idazki, jakinarazpen eta harreman guztietan enpresak agerraraziko du Familia Gunea zerbitzuaren arreta eta dinamizazioaren arduradun izaera duela, ekipamendu horiek udalarenak direnaren aipamenarekin batera. Horretarako udalak ezarritako logotipoak, armarriak, inprimakien formatuak, e.a. erabiliko ditu.

11. ESCRITOS Y DOCUMENTACIONES

En todos sus escritos, comunicaciones y relaciones, la empresa hará constar su calidad de ser la responsable de la atención y dinamización del servicio Familia Gunea, junto con la referencia de que dichos equipamientos son municipales, utilizando los logotipos, escudos, formatos de impresos, etcétera, establecidos por el Ayuntamiento.

12.- IZEN - EMATEAK

Udalak bere gain hartuko du “Familia Gunea programan izen ematearen kudeaketa. Behin izen emateak egin ondoren, enpresa esleipendunari horien zerrenda jakinaraziko zaio.

13.- INSCRIPCIONES

La gestión de las inscripciones en el programa “Familia Gunea” corresponderá al ayuntamiento. Una vez realizadas las inscripciones se comunicará el listado a la empresa adjudicataria.

13.- JENDARTERATZEKO KANPAINA

Errenteriako Udalak zerbitzuak jendarteratzeko, urtero, publizitate kanpaina egingo du herri mailan .

Kanpaina horrek eragindako gastua Udalaren kontura da. Udala enpresa esleipendunarekin koordinatuko da, informazioa eman eta informazio-liburuxkak edo bestelako informazioa jendarteratzeko.

13.- CAMPAÑA DIVULGATIVA

El Ayuntamiento de Errenteria realizará, anualmente, una campaña publicitaria y divulgativa, a nivel municipal.

Los gastos derivados de la campaña correrán a cargo del Ayuntamiento, quien se coordinará con la empresa adjudicataria para la emisión de la información y divulgación de los folletos informativos u otro tipo de información.

14.- ERRENTERIAKO UDALAREN

14.- FACULTADES DEL AYUNTAMIENTO DE

ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9

ESKUMENAK

Errenteriako Udalak, Gazteria Azpisailaren bitartez, koordinatu eta ikuskatuko ditu enpresa adjudikazio-hartzailearen eginkizunak.

Enpresa esleipendunak aurkeztutako proposamenetik abiatuta iritsiko da "Familia Gunea" egitasmoaren azken diseinu egokitzapenera, eta Errenteriako Udalak oniritzia eman beharko dio; Udalak aukera izango du enpresarekin batera aldaketak eta berritasunak sartzeko, betiere oreka mantenduta burutu beharreko lanen eta kontratuaren prezioaren artean.

ERRENTERIA

El Ayuntamiento de Errenteria, a través del la subárea de Juventud, llevará a cabo la coordinación y supervisión de las labores encomendadas a la empresa adjudicataria.

A partir de la propuesta presentada por la empresa adjudicataria se llegará al ajuste del diseño final del programa "Familia Gunea" que deberá ser validado por el Ayuntamiento de Errenteria, pudiendo éste acordar con la empresa cambios y novedades siempre respetando el equilibrio entre los trabajos a realizar y el precio del contrato.

15.- ENPRESAREN SUBROGAZIOA

Kontratutik esleipendun gertatuko den enpresak betebeharrak, ardurak eta lan baldintzak subrogatu beharko ditu, kontratu berrira arte zerbitzuan jardun duten langileei dagokienez.

Ez dira subrogatuko bazkide egoera duten pertsonak, hala nola zuzendaritza edo kudeaketa lanetan edo ordezkapen ahalmenak izan dituztenak.

Kontratazio organoak lizitatzaileei emango die dokumentazio osagarrian subrogazioa eragiten dieten langileen lan baldintzen inguruko informazioa, hain zuzen ere halako neurrirako beharrezkoa izango dena lan kostuen ebaluazioa gauzatu ahal izateko.

15.- SUBROGACION EMPRESARIAL

La empresa que resulte adjudicataria del contrato se subrogará en las obligaciones, responsabilidades y condiciones laborales en relación a los trabajadores y trabajadores que han prestado el servicio hasta el nuevo contrato.

No serán objeto de subrogación aquellas personas que ostenten la condición de socio/a, así como las que hayan desempeñado tareas de dirección o gerenciales o que hayan ostentado poderes de representación.

El órgano de contratación facilitará a los licitadores, en la documentación complementaria, la información sobre las condiciones de los contratos de los trabajadores a los que afecte la subrogación que resulte necesaria para permitir la evaluación de los costes laborales que implicará tal medida.

16.- LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Enpresa esleipendunak derrigorrez bete beharko du indarrean dagoen lan arloko araudia, Gizarte Segurantzarena eta Laneko Osasunarena, betiere kontratuaren xede diren lanetan.

Era berean, Udalari aurkeztu beharko dio lan arriskuen prebentziorako dokumentazioa, baldintza-agiri hauekin II Eranskin gisa batera

16.- PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

La empresa adjudicataria está obligada al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de Seguridad Social y Salud en el Trabajo, respecto de los trabajos objeto del contrato.

Así mismo deberá presentar al Ayuntamiento la documentación de prevención de riesgos que se acompaña a estos pliegos como Anexo II.

ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9

datorrena.

Prebentzio lanen kontrola zerbitzua gainbegiratzen duen udal teknikariak burutuko du, eta zerbitzua errealki ematen hasi baino 5 egun lehenago gutxienez aurkeztu beharko du.

El control de la misma se ejecutará por personal técnico municipal supervisor de servicio y deberá aportarse con una antelación de al menos 5 días a la fecha prevista de la efectiva prestación del servicio.

Kontratuaren exekuzioa hasi baino lehen, enpresa kontratistak idatziz egiaztatu beharko du kontratuaren xedea den jarduerako arriskuen ebaluaketa eta prebentziozko jardueraren planifikazioa egina duela, baita laneko zentroan beren zerbitzuak beteko dituzten langileei dagokienez informazio eta formazio alorreko obligazioak bete dituela, hori guztia urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuan jasotzen dena kontuan hartuz, zeinak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzen duen, enpresa jardueren koordinazioari dagokionez. Horretarako, prebentziorako udal zerbitzuek egindako arriskuen ebaluaketa eta larrialdien plana dokumentuak espedientean daude.

Con carácter previo al inicio de la ejecución del contrato, la empresa contratista deberá acreditar por escrito que ha realizado, para la actividad objeto del contrato, la evaluación de riesgos y la planificación de su actividad preventiva, así como el haber cumplido sus obligaciones en materia de información y formación respecto de los trabajadores que vayan a prestar sus servicios en el centro de trabajo, ello de conformidad con lo dispuesto en el Real Decreto 171/2004, de 30 de enero, por el que se desarrolla el artículo 24 de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de coordinación de actividades empresariales. A estos efectos la evaluación de riesgos y el plan de emergencia elaborados por los servicios de prevención municipales obra en el expediente.

Errenterian, Sinaduran agertzen den datan

Errenteria, En la fecha de la firma

HEZKUNTZA ETA GAZTERIA TEKNIKARIA

EL TÉCNICO DE EDUCACIÓN Y JUVENTUD

Stua/Fdo: Iñaki Otamendi Gutiérrez

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU714fa330-bea8-4711-861d-0a5fab6b02d9**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2021OZER0034-BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA/DOCUMENTO CONDICIONES

Data / Fecha: 2021/09/29 12:10:46
Sinatzailea 1 / Firmante 1: IÑAKI OTAMENDI GUTIERREZ - 72443338P